



elkarrekin eraikiz

cocreando valor público

PROZESUAREN LEHENENGO
JARDUNALDIAREN ONDORIOEN
LABURPEN TXOSTENA





elkarrekin eraikiz
cocreando valor público


1GO GALDERA

**ZER DA, ETA ZER EZ DA ,
HERRITARREN PARTE-HARTZEA?**



ZER DA herritarren parte-hartzea galdetuta, kontzeptu honi buruzko ekarpenak hiru atal nagusitan bildu daitezke:

- parte hartzeko beharrezko **jarrerak**
- bere **prozesu** dimentsioa
- parte-hartzeari lotutako **eskubide-betebehar** dikotomia





Parte-hartzea ZER EZ DEN definitzeko atalean, ekarpen nagusiak kontzeptu-laino honetan biltzen dira:

EZ DA NORABIDE BAKARREKOA

- Ez da nik zer nahi dudan galdetzea
- Ez da erantzun zuzena izatea
- Ez da hondatutakoa konpontzea
- Ez da iritzia edo aholkua eskatzea, ez iritzia ematea ere
- Ez da galderari erantzutea soilik

EZ DA MAKILLAJE- EKINTZA BAT

- Ez da maniobra politiko bat
- Ez da manipulazioa
- Ez da partiduen motibazioek herritarrek instrumentalizatzea
- Ez da kosmetika-ariketa bat, erakusleihen bat...
- Ez da propaganda
- Ez da segiziozaletasuna
- Ez da populismoa

EZ DA DESOREKAK SORTZEA

- Ez da kontzesio bat
- Ez da inposaketa bat
- Ez da botere-erlazio bat
- Ez da delegatzea
- Ez da jada hartutako erabakiak justifikatzea
- Ez da inposatzea
- Ez da kontsentsuaren bilaketa obsesiboa
- Ez da noranzko bakarrekoa

EZ DA ESPONTANEOA

- Ez da araurik gabeko prozesua
- Ez da jarduera zehatz eta puntual bat
- Ez da zentzua eta mugak argi ez dituen prozesu batean sartzea
- Ez da itxaropen faltsuak sortzea

EZ DA MODA BAT

- Ez da moda bat
- Ez da marketina, ezta publizitatea ere
- Ez da iritzi-kultura
- Ez da prozesu elitista bat
- Ez da administrazioak sortutako zerbait
- Ez da (soilik) demokrazia zuzena, ezta biltzar bat ere
- Ez da inoren jabetzakoa, ez inongo partidu politikorena ere
- Ez da burokrazia, ez dira izapideak

EZ DA GAUZA SINPLE BAT

- Ez da sinplea, konplexua da
- Ez dira monosilaboak, elkarrizketa, iritzia eta kontrasteak eskatzen ditu
- Ez da helburu bat, bide bat da Baina ez da bide huts bat ere: filosofia bat da
- Ez da gomita abstraktu bat, gutxi definitua
- Ez da azken emaitza, hausnarketa prozesu bat da
- Ez da helburu bat, helburu horretara nola heltzen garen baizik



elkarrekin eraikiz
cocreando valor público

2. GALDERA

**ZER ERAGIN DU PARTE-
HARTZEAK ADMINISTRAZIOAN?
ETA HERRITARRENGAN?**



Jardunaldian bildutako ekarpenek balioetan, jarreretan, Administrazioaren **IZATEAN** bertan dakartzan eraldaketak aipatzen dituzte eta baita parte-hartzeak Administrazioaren **EGITEKOETAN** dituen eraginak ere. Jaurlaritzaren jardunaren **EMAITZETAN** ere laburki nabarmentzen da parte-hartzearen eragina.

IZATEA

- Ardura eta konpromiso maila handiagokoa
- Apala eta gardena
- Hurbila eta konfiantzazkoa
- Aniztasuna zaindu eta aukera berdintasuna bermatzen duena
- Autokritikoagoa
- Iragazkorra

EGITEKOA

- Beldurrak, zalantzak eta arriskuak kudeatu
- Proaktiboagoa eta herritarren beharretara zuzendua
- Jabetze prozesuak aktibatu eta espazio berriak sortzen lagundu
- Antolaketa egituretan aldaketak: zeharkakoak eta malguak

EMAITZAK

- Erakundeen arteko koordinazioa
- Konpromiso politikoak, alderdietatik haratagoa doazenak
- Parte-hartzearen erabilgarritasunaren aitortza
- Erabaki hobeak (aberatsagoak, justuagoak, anitzagoak, partekatuagoak, sortzaileagoak...)
- Eraginkortasuna hobetzen du

HERRITARRENGAN

2. GALDERA



Garapen pertsonaleko esperientzia bat

Prozesu parte-hartzaileek kezka eta arazoak beste pertsona batzuekin partekatzea ahalbidetzen dute, eta, beraz, aberasgarriak dira. **Ablezia pertsonalak eta sozialak garatzen** laguntzen digu, entzuteko gaitasuna, enpatia edo komunikazio-gaitasuna esaterako, eta ezagutza berriak erdiesteko bidea ere bada.

Geure inguruan paper aktiboagoa jokatzea ahalbidetzen digu

Parte-hartzeak politiken subjektu pasibo izatetik subjektu aktibo izatera pasarazten gaitu (**jarrera-aldaketa** ahalbidetzen du). Entzunak izate hutsak, arazoen ebazpenean herritarren ahotsa eta papera aitortze hutsaren ondorioz, herritarrak **gehiago inplikatz**en dira eraikuntza kolektiboko proiektuetan, eta politikarekiko eta horretan diharduten pertsonenganako **konfiantza berreskuratzen** dute

Publikoa / kolektiboa denarekiko konpromisoa dakar berekin

Parte-hartzea indibidualismotik ateratzeko eta taldean pentsatzeko konpromiso, ahalegin gisa ulertzen badugu, parte-hartzeak **erantzukizuna eta konpromisoa** dakartza. Eskuordetze dinamika eten behar dugu, eta, hein batean, herriaren gobernagarritasuna geure gain hartu espazio publikoan jardutean. Espazio publikoa berreskuratzeko **denbora, esfortzua eta dedikazioa** eskatzen du

2. GALDERA



BAI ADMINISTRAZIOARENTZAT ETA BAI HERRITARRENTZAT:





elkarrekin eraikiz
cocreando valor público

PREGUNTA 3

**ZEIN IZAN BEHAR DA LIBURU
ZURIAREN EDUKIA IZAERA
PRAKTIKOA IZAN DEZAN?**

3. GALDERA



Galdera honen xedea da Liburu Zuria prestatzean aintzat hartu beharreko **edukien aurkibide** bat lortzea, prozesu parte-hartzaile honen baitan burutuko diren **hurrengo jardunaldietako** eztabaidetarako gai zerrenda ere izango dena:

Ze eduki izan behar du Liburu Zuri honek?

1) **Liburu Zuriaren helburuen azalpena**

Liburu Zuri honen zergatia definitu, zer lortu nahi den bere lanketa parte-hartzailearen bidez eta zein den haren planteamenduan dagoen apustu eta borondate politikoa zehaztuz.

2) **Marko kontzeptuala: oinarri komun bat**

Onarrizko kontzeptuak eta horien irismena definitu, parte-hartzea zer den eta zer ez den ahalik eta argien azaldu, parte-hartzeko eredu ezberdinen berri eman, alde onak eta txarrak azalduz.

3) **Analisia eta prospektiba:** hasi baino lehen, non gauden eta nora heldu nahi dugun.

Euskadin parte-hartzeak duen egungo argazkia biltzen duen diagnosis burutu, tokian tokiko zein nazioarteko **erreferentziako praktiken analisi** batez osatuz.

4) **Parte-hartzea: nork eta zertarako?**

Parte-hartzeko prozesuen mugak eta mugaketak (zein diren, baldin badaude) eta parte-hartzeko parametroak eta joko-arauak zehaztu. Parte-hartzeko bide ezberdinak aztertu, non eragileek (administrazioek, erakundeek, herritarrek) sustatzailearen zein parte-hartzailearen rola har baitezakete berdin-berdin.

3. GALDERA



5) Zertan parte hartu: parte-hartzearen eremuak eta dimentsioak
Parte-hartzeak zein erabaki publikotan duen zentzua eta zeinetan ez erabakitzea litzateke, finean.

6) Nola parte hartu: kanalak, espazioak, mekanismoak eta metodologiak

Partaidetzaren moduak landu (ez edukiak bakarrik). Prozesu parte-hartzaileen kanal eta espazioen, mekanismo eta metodologiaren inguruan eztabaidatzea planteatzen da, egoera bakoitzaren abantailak eta desabantailak aztertuz

7) Parte-hartzearen eraginak eta ondorioak eta aldaketa-prozesuak

Parte-hartzea prozesu gisa ulertzen badugu, haren eraginak eta ondorioak aintzat hartu behar ditugu, eta, beraz, komunikazioa, ebaluazioa, aitortza eta ikaskuntza giltzarri dira haren eragina baloratzeko.

8) Azkenean, hastapenak diren ondorioak: eta nik zer egin dezaket?

Liburuari amaiera emateko, eman beharreko urratsen zerrenda bat lantzea proposatzen da, prozesuan parte hartu duten pertsonak eta erakundeak konprometituko dituen eta abiarazitako prozesuari jarduera zehatzen bidez jarraitutasuna emango diona. Era berean, landu litezkeen zenbait jarduera praktiko aipatzen dira: proiektu-pilotoak, dekalogo bat lantzea, hezkuntza esparrurako proposamen didaktikoak, etab.



Azkenik, prozesu parte-hartzailea praktikoagoa eta ulergarriagoa izan dadin diseinuan aintzat hartu beharreko zenbait ekarpen jaso dira, eta helburu berarekin, Liburu Zuriaren idazketan sar daitezkeen zenbait eduki ere iradoki dituzte parte-hartzaileek:

PROZESUAREN DISEINUAN KONTUAN HARTU BEHARREKOAK

- **"Besteak" sartzea:** eragileen eta ikuspegien aniztasuna, eztabaida herritarrei eta parte hartu ohi ez duten pertsonei irekitzea.
- **Prozesuan egon behar duten eragileak identifikatzea.**
- **Prozesuaren kronograma** eta haren mugarri nagusiak ekartzea eta komunikazioa trinkotzea prozesuan zehar.

LIBURU ZURIAREN IDAZKETAN KONTUAN HARTU BEHARREKOAK

- Termino-giltzarrien **glosarioa**
- Erreminta-kutxa , honako edukiekin: ikasitakoak, prozesu bat kalitatezkoa izateko orientazio-irizpideak, jardun onei lotutako metodologiak, etab.
- **Bibliografia-erreferentziak**, testu nagusiaren trinkotzea saihestuz
- **Adierazle bisualak** euskarri publiko batean
- **Liburua aldakorra izan daiteke?** Birpasa dadila, alda dadila... ez dadila itxia izan.
- **Esperientziak edo parte-hartzeko forma berriak**



elkarrekin eraikiz

cocreando valor público

PROZESUAREN LEHENENGO
JARDUNALDIAREN ONDORIOEN
LABURPEN TXOSTENA

